

IRAKURMEN-ULERMENA

Bazen behin, 8 urteko Sara izeneko neskatxa alai bat. Sara Gasteizen bizi zen bere familia erraldoiarekin eta erraldoia dela esaten dut ez bakarrik kopuruagatik, bihotz erraldoia zuen familia polit batean bizi zelako, baizik.

Sara familiako alaba txikiena zen eta 5 anaia-arreba zituen. Beraz, imajinatu ahal duzue zer-nolako juergak botatzen zituzten bazkarietan.

Sararen familia artisteraz osatuta zegoen eta akrobazia talde bat osatzen zuten denek. Astebururo herri ezberdin batean antzezten zuten eta, horrela, irabazten zuten diru nahikoa aste horretan goxo-goxo jan ahal izateko, hori baitzen haien lana. Nahiko nuke nik ere horrelako txiribueletak ematea!

Orain, koronabirus madarikatu honengatik, haien ikuskizunak bertan behera utzi behar izan dituzte eta, ondorioz, aurten seguraski ezin izango dituzte jostailuak edo arropa berria erosi, etxera ezin dutelako astero diru kopuru berdina eraman.

Baina, hasieran esan dizuedan bezala. Sararen familia artistez osatuta dago eta, primeran dakizuen bezala, artistak ez dira ohean etzanda erraz geratzen, buruari etengabe eragiten diote ideia zoragarrien bila eta Sararena mundiala iruditu zait:

Haien etxea ez da oso handia eta, horrenbestez, ezin dituzte akrobaziak egin, arriskutsua delako. Baina, badute espazio nahikoa bakoitzak etxeko eremu batetik hoberen egiten dakiena egiteko eta bideoz grabatzeko. Sara nere bizitza osoan ikusi dudan dantzari onena da, benetan. Ezin duzue imajinatu nola mugitzen dituen ipurdia, aldaka, besoak eta hankak!

Berak gorputza mugitzen duenean, nire bihotzak azkarrago bidaltzen du odola nire gorputzera. Ez dakizue zer-nolako erritmoa duen!

Beraz, Sararen bideoa Euskal Herriko etxe askotara heltzen ari da eta gero eta jende gehiagok dio hau amaitzen denean bere familiaren akrobazia ikuskizuna ez duela galduko.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Maeztuko plazan.



IPUINA IRAKURRI ONDOREN, ERANTZUN ONDORENGO GALDEREI:

1. Zenbat urte zituen Sarak?

2. Non bizi zen Sara?

3. Zenbat seme-alaba zituen Sararen familiak?

4. Zein zen haien lana?

5. Zein da Sararen abilezia onena?

6. Zer gorputz atalak mugitzen ditu primeran dantzatzerakoan?

7. Nora heldu da Sararen bideoa?